

GURE OLERKARIAK

Iratzeder'en poesi-liburu berria. Eguberriz, Jesus Aurraren eskupeko bitxi bezala, idazti dotore bat eldu zitzaidan eskuetara. Beloke'tik zetorren, ango abata agurgarri, Iratzeder olerkariak bialduta.

Uhaineri nausi du izena liburu orrek. 96 orrialde daduzka, ta sei marrazki ikusgarri. Iru zatitan banandua dago: 1) Lanopetik; 2) Uhai-nen artean, eta 3) Uhaietarik argirat. 1958-1971 bitartean ondutakoak dira. 47 poema guztiz. Atsegin aunditan irakurten dira danak.

Iratzeder izan ere olerkari betea dugu, goxo ta ariña. Leendik argitara emanak dituan iru liburuetan —«Pindar ta lano», «Zeru-menditik» eta «Argiz argi»— olaxe ageri zaigu. Ugaria du oler-sena, mendi-beezumurka datorren latsa iduri; berez-berezkoa zaio itz neurtuz barnea usutzeko doaia; berezkoagorik nekez aurkituko, alajaiña!

Zalantza gabe au esan dezakegu: osagarri legez diarduala poesigintzan. Musikaz ta olerkiz garbitu oi arimea Pitagoras'en jarraitzaileak, bere irakatsien arabera. Aristotele'k ere orixe bera zioan, ots, olerkia ta musika guri zirrara-eragiñez barne-muiña garbi-arazteko zirala. Bi arteok izan ere, sarri idatzi ta esan danez, gorputzarentzat osagarri ta arimearentzat moral indar berezi ditugu; au da: arte biok erraz sort-azten dituzte gure baitan armonia ta on-sentipenak. Ederra ta ona erraz elkartzen zituzten antziñako aientzat oitura ta ariketa onak ere, ederrak ziran erabat.

Gisa ortakoa da Iratzeder'en kanta, era askotako gaietan ari izanik. P. Lafitte'k ederk: «Olerkiak badi-tutzu zure-zureak: han ditutzu aipatzen hein bat amultsuki zure etxe-koak, komentua dagon zerumendia. Eskual herria bere on-gaitzekin, zure doluak edo alegrantzia, Jainkoarekilako zure har-emanak. Zuretzat poesia ez da jauntz eta erauntz ditaken soineko bat: haragia eta hezurra bezain bat egina da zure jitearekin. Hots, zure hatsa, zure bi-zia... «Surréaliste» gaizok laket baituzte ezin ulertuzko olerkiak, dena ilhunkeria, ahapaldi truketa eta markets, ez dut uste, Aita Xabier, heiekilako zitazken. Segur, luma zahlu eta zume duzu, baina ez zira, beharrik, zure solasen hausterat, bihurdukatzeart, ez kraskatzerat eka-ria» (Euskera, 1962, 72 orr.).

Erraz ta txukun abesten du oro. Igarri gabe ama zaartu egin zaio, ta olerkariak kanta:

«Ezpain ximurretarik badarizu beti bakea, zuhurtzia eta solas ezti; baina, aditzen duzu nekez eta guti.

Nola zaren ama nola zaren amatxitul...»

Eta egun batez il zaio bizia eman zion kutuna. Gau-bela egiten dio. Gau beltza! Biotz ikara! Illez bezala bizi da semea. Damu du amari pena emana. Ixil-ixilla, biotz xamur, illari diotsa:

«Ez begiez, bai bihotzez dezakegu Jauna suma; hir da, nerekin erranez: musu eman; ni naiz, ama».

Ba-ditu sozial oietakoak ere. Bein euskal bilkura bat zala-ta Donostia'ra etorri zitzaigun; bilkura ortan, batzarkideen artean alegia, nastea sortu zan galerna bezain ikaragarria. Etzion orrek mesederik egin olerkariaren biotza, suminduta biazan itzuli etxera. Beloke gaiñean, bere gela mistikuan ixil-ixilla, «Itsa-soaren mintzoa» deritzan poema sarkorra ondu zuan. Irakur irugarren aapaldia:

«Irautekotan denek bat behar, eta guk ez bat egiten... Eskual-gizonak noiz ote gare denak-senak bat bilduren? Hitan naitituk zabal zabalik hoinbertze uhain bat biltzen, errak, itsaso zeruz betea, nolaz denak bat gaitzekin».

Ez, ez ditu euskaldun semeak elkar erpaka ikusi gura. Beraz, onela dago erregu Jainko Jaunari:

«Euskual-Herriak, eskual-jendeak egin dituzun Jainkoa, eman daukuzu mundu hau baino bihotz bat handiagoa.

Eskual-jitea beroa dugu beroa eta osoa, batzu bertzekin etsaitzeraino nahi gauzetan baltoa.

Elgar jatetik begira-zkitzu eskual-semeak, Jainkoak».

Gaurko poeta gazteari arrentxo bat. Iratzeder bere bide prestuz dabilkigu; bebil urte askoz gure euskaldun olerkari klasiku. Zuek, ostera, ba-liteke «ezin ulertuzko» olerkiak laket izatea. Nik, ala ere, zuen poema oiekin osatu nai nuke bilduma bakain mardul bat. Ezagun dazute ogeitaz urteak dirala aurretiko bertso-lanez borobildu nuen Milla euskal olerki eder liburua. Alako zerbait burutu nai nuke; oraingo au ere izan dedilia bilduma eder bat, euskeraz ta erderaz (orri-la eskatu didate), azken ogei urte auetako olerkarien poemakin. Zuan lanak bederen argitaratuko nituzke.

Eta, neri lana erraztutzeko, bialdu mesedez zuen lanak itzulpen eta guzti. Millesker! Egin ezazute aukeraten goxo bat or dituzuten ederekin eta igorri datorren maiatzaren azkena baino leen, al dala, asmotan dudan liburua orduko irakolara eraman nai nuke-ta. Foliotan idatzi, batean euskeraz eta bestean erderaz.

AITA ONAINDIA

“ALBORADA”

Gaurko bizimoduan sortzen diran milla porrusalda, eta eguneroko arazoek ematen dizkiguten larritasunak pixka bat arintzeko dala dirudi, Iñaki Linazasoro'k egindako liburua.

Bertan azaltzen diran gertara eta esaldi xebreak, gizonik serioenari ere irriparra eragingo diote.

Ortarako, azkarra eta trebea dugu Linazasoro.

Parra egin arazteko, ez da aski txistea soil soilik kontatzea. Baizik eta garrantzia, nola kontatzen dan, ortantxe dago.

Iñaki Linazasoro'k bere luma dantzatzen duanean, ibai eta mendietako kontaminazio eta zikinkeriak aizatzean, Euskal Erriko eliz, ermita eta beste

zenbait arte-lan ondatuak, aaztuak ikastean, eta beste gai serioetan ere, bear dan gatza eta piperra erabilliaz, irakurleari atsegiña zaion janaria eskeintzen dio.

ALBORADA'n, Euskalerriko umorea azaltzen du. Ez da euskal gizon parregarrien kontura algara erraza egiteagatik. Baizik eta gizon oiek esan eta egindako xeblekeriak aztertuz gure erriko umorea eskeintzen digu.

Liburu onek ez du beste elbururik. Ezin zaio beste inongo aldetik eldu. Irakurleak irriparra gustora egiteko aukera bat eskeintzen du.

Ez irripar erraza ordea. Erraz irripar egiteko aukera baizik.

ZAPIRAIN